

JESUS ETA LOIOLAKO IÑAZIO

1

Iñazio Loiolan
jaio ta hazia,
haundiki-artekoa
eban errazia.
Baina gehiago izan zan
Jaunaren grazia,
hortik dauka koroia
gaur irabazia.

2

Iñaziok baeukan
nahi beste aukera,
gorantza igoteko
mila eskailera.
Eskailera-erdian
dana goitik behera:
beste baten agertu
jakon Jesus Bera.

3

Iruñiako burrukan
jasan dau porrota,
ibili ezinean
lurrean dago-ta.
Gorputzez zauriturik
ta bihotzez jota,
ordu hau mila bider
zelan ez gorrota?

4

Horra gure mutila
bakarrik Loiolan,
errenditu ezinik
txoria kaiolan.
Baina Jaunak ez dauka
ahaztuta inolan,
irakasle ona da
gaixoen eskolan.

5

A ze isiltasuna
daukan inguruan!
Baina burruka latza
bihotz ta buruan.
Zer aurkitzen ete dau
santu-liburuan?
Haren bidez sartu da
bide seguruan.

6

Uko egiten deutso
lehengo bideari,
bihotz-damuz autortuz:
"Ni naz pekatari".
Jesus agertzen jako
lagun ta gidari,
Iñazio jartzen da
Jesusen gudari.

7

Jesusi jarraitzea
da bere amesa,
herrenka baina bixkor
dabil erromesa.
Lekuko Arantzazu
ta gero Manresa,
herren hau gelditzea
ez da gauz erreza!

8

Hor dago Iñazio
Jesusez beteta,
bere konbertsinoa
ez da barriketa.
Biderdian Jesusek
urten deutso-eta,
hor Iñazioarentzat
zer dan topaketa.